

## **“ARABAKO KALKULU GUNEA, SA”** **URTEKO KONTUEN MEMORIA – 2009KO EKITALDIA**

### **1. OHARRA. IZAERA ETA JARDUERA GARRANTZITSUENAK**

ARABAKO KALKULU GUNEA, SA (hemendik aurrera sozietatea) foru sozietate publiko gisa eratu zen 1989ko uztailearen 26ko eskritura baten bidez. Hala Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak urte bereko martxoaren 14ko bilkuran onartutako 509. zenbakiko Foru Dekretuan ezarritakoa bete zen.

Sozietatearen helbidea Gasteizen dago: Probintzia plaza, zenbaki gabe.

Sozietatearen iraupena mugagabekoa da eta haren xedea eta jarduera garrantzitsuena informatika ustiapen eta garapenarekin zerikusirik duten zerbitzuak ematea da, baita zerbitzari, erabiltzaile edo txartel euskarrien ziurtapena eta elektronika, informatika eta telematikako bide eta tekniken bitartezko segurtasuna, balioa eta eraginkortasuna bermatzera zuzendutako zerbitzuak ere. Fakturazioa Arabako Foru Aldundiari, akziodun bakarrari, eta Arabako Lurralde Historikoko beste erakunde publiko batzuei egiten zaie batik bat (12. oharra). Horrez gainera, bazkideen ekarpenen bitartez ere finantzatzen da, hain zuzen ere bazkideek akziodun bakarraren (Arabako Foru Aldundia) galerak konpentsatzeko egiten dituzten ekarpenen bitartez.

Sozietatea 15/87 Foru Arauan, Sozietate Anonimoen Legean eta legezko beste xedapen gehigarri batzuetan garatutako xedapenen arabera zuzentzen da. Haren kapital osoa Arabako Foru Aldundiak harpidetu eta ordaindu zuen, 1988ko urriaren 31tik aurrerako ondorioekin Arabako Kalkulu eta Informazio Lanketarako Gunearen Partzuergoa desegitetik eta ondoren likidatuzetik etorritako ondarearen gauzazko ekarpenaren bidez.

### **2. OHARRA. AURKEZPEN OINARRIAK**

#### **2.1. Irudi zehatza**

Indarreko legeria betetzeko, sozietateko administratzaileek kontabilitate erregistroak oinarri hartuta 2009 ekitaldiko urteko kontuak egin dituzte. Aipatu kontuetan kontabilitateari buruzko araudi orokorra onartzen duen 1514/2007 Errege Dekretuan eta kontabilitatearen arloan indarrean dauden legezko gainontzeko xedapenetan jasotako kontabilitateko printzipioak eta baloratzeko irizpideak aplikatu dira. Horien bidez ondarearen, finantza egoeraren eta sozietatearen emaitzen irudi zehatza jartzen da agerian, baita ondare garbian izan diren aldaketak eta eskudiru fluxuen egoeran islatu diren fluxuak ere.

Irudi zehatza erakuste aldera kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko arrazoi berezirik ez dago.

Sozietateko administratzaileek uste dute Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2009 ekitaldiko kontuak onartuko dituela aldaketa esanguratsurik gabe. Izan ere, organo horri dagokio Akziodunen Batzar Nagusia eratu eta azken horren eskumenak gain hartzea, Arabako Lurralde Historikoari buruzko 15/87 Foru Arauko 18. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Diputatuen Kontseiluak 2009ko apirilaren 7an egindako bilkuran onartu zituen 2008 ekitaldiko kontuak.

## **2.2. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena**

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu sozietateak bere finantza egoerak; izan ere, ez da eman hurrengo ekitaldiko aktibo edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Sozietateak une oro galerak ditu, batez ere, bazkide bakarrari egindako zerbitzuen ematean egitura kostuak sartzeagatik. Ordea, ez dago sozietatearen jarraitutasun arriskurik, akziodunak ekitaldian zehar ekarpenak egiten baititu sortutako galera guztiak konpentsatzeko.

## **2.3. Informazioa alderatzea**

Merkataritzako Kodearen 35.6. artikuluan xedatutako betebeharraren ondorioetarako eta berdintasun printzipioa eta alderagarritasun baldintza aplikatzearen ondorioetarako, administratzaileek, galera-irabazien, galeren eta irabazien kontuaren eta eskudiru fluxuen egoeraren partida bakoitzarekin, 2009 ekitaldiko kopuruez gain, 2008ari dagozkionak aurkeztuko dituzte. Hori gutzia alderatze aldera. Bi ekitaldietako partidak aldera daitezke.

Enpresa legez dago behartuta 2009 ekitaldiko urteko kontuak ikuskatzera eta 2008ko kontuen auditoretza egin zuen legez ezarrita dagoelako.

## **2.4. Partida bat baino gehiagotan jasotako elementuak**

Galera-irabazien, galeren eta irabazien kontuaren, ondare garbian izandako aldaketen egoeraren eta eskudiru fluxuetan islatutako egoeraren partida jakinak taldeka aurkezten dira, ulermena errazteko; nahiz eta memoriako zenbait oharretan bereizitako informazioa txertatu, garrantzitsua den neurrian.

## **2.5. Aldaketak kontabilitate irizpideetan**

2009 ekitaldian ez da burutu urteko kontuen inguruko doikuntzarik kontabilitate irizpideen aldaketengatik.

## **3. OHARRA. EMAITZEN APLIKAZIOA**

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Nagusiari emaitzen banaketa hau proposatuko dio:

	<b>Euro</b>
<u>Banaketa oinarria</u>	
- Ekitaldiko galerak eta irabaziak (galerak)	(7.675.524,36)
<u>Banaketa</u>	
- Galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpena	(7.675.524,36)

#### **4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK**

Sozietatearen urteko kontuak formulatzerakoan erabili diren kontabilitate irizpide eta arau garrantzitsuenak, jarraian azaltzen diren hauek dira:

##### **4.1. Ibilgetu ukiezina**

Ibilgetu ukiezina, informatika aplikazioak eskuratzeari dagokiona, eskuratzeko kostuan balioesten da, eta bere amortizazio metatutik garbi aurkezten da. Amortizazio hori % 20ko amortizazio koefizientea aplikatuz kalkulatzen da. Koefiziente hori ustez sarrerak lortzeko behar den biritza baliagarriaren baliokide da. Erabat amortizaturik dago.

Sozietateak erabiltzen dituen aplikazio informatiko gehienak Arabako Foru Aldundiarenak dira.

##### **4.2. Ibilgetu materiala**

Ondasun ibilgetu materialak beren kostuaren balioaren arabera aurkezten dira, dagozkien amortizazio metatuak kenduta.

Ibilgetuaren zati bat sozietatea eratu zenean Arabako Foru Aldundiak ekarritako ondasunen zenbatekoari dagokio, bidezko amortizazioak kenduta. Ondasun horien balioa bat dator Arabako Kalkulu eta Informazio Lanketarako Gunearen Partzuergoaren finantza egoeraren orrietan ekarpena egin zen egunean erregistratuta zegoen kontabilitateko balio garbiarekin (ikus 1. oharra).

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa abian jartzeko eskuragarri daudenetik egiten da, hain zuzen, modu linealean balioetsitako biritza erabilgarrian zehar. Hala, hondar balioa hutsa izango dela zenbatesten da, balioetsitako biritza erabilgarriaren ondorengo urteen arabera:

	<b>Biritza baliagarriaren urteak</b>
- Instalazio teknikoak	7
- Altzariak eta etxeko gauzak	7
- Informazio prozesuetarako ekipoak	7

Ibilgetu materiala 2009ko abenduaren 31n erabat amortizatua dago.

Ibilgetu materialak mantentzeko eta konpontzeko gastuak, ibilgetu horiek hobetzen edo beren biritza baliagarria luzatzen ez badute, galdu-irabazien kontuan kargatzen dira sortzen diren unean.

Ibilgetu materialaren ondasunak 1999ko ekitaldia baino lehenagoko eskuratzeko dira. Hala, sozietatea erabiltzen da Arabako Foru Aldundiko ondasunak/zerbitzuak emateko.

##### **4.3. Finantza tresnak**

Erakundeak finantza tresnen kapituluan finantza aktiborako eta, aldi berean, finantza pasiborako edo beste enpresa bateko ondare baliabiderako bidea ematen duten kontratuak erregistratuta ditu. Beraz, honako hauek dira finantza tresnak:

#### **4.3.1. Finantza aktiboak**

Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko kredituen balioa arrazoizko balioa da, eta hau bat dator balio nominalarekin, epealdia urtebete baino laburragoa baitute.

Saltzeko prest dauden inbertsioak arrazoizko balioarekin erregistratu dira. Ondare tresnetako inbertsioei (akzioak) dagokienez, eskuraketa balioa erregistratu da, behar izan den kasuetan narriaduragatiko zuzenketa aplikatuta. Horretarako sozietateak partaidetza daukan erakundearen ondare garbia hartu du erreferentziatzat, hain zuzen ere onartutako azken urteko kontuetan islatzen dena.

#### **4.3.2. Finantza pasiboak**

Merkataritzako eta merkataritzatik kanpoko eragiketengatik ordaindu beharreko zor eta partidak balio nominalarekin bat datorren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira.

#### **4.4. Mozkinen gaineko zerga**

Ekitaldiko kontabilitate emaitza bat dator Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarri negatiboarekin.

Zuhurtasun irizpideari jarraiki, sozietateak ez du kontabilizatu zerga oinarri negatiboaren ondoriozko zerga kreditua.

Gainera, sozietateak % 99ko hobaria dauka zergaren kuotan, 24/96 Foru Arauko 36. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **4.5. Sarrerak eta gastuak**

Sozietatearen sarrerak Arabako Foru Aldundiari eta honek gehiengoko partaidetza duen enpresa eta organismoiei egindako zerbitzuetatik datoz.

Sozietatearen irizpidea azpikontrataturako zerbitzuen zenbatekoa fakturatzeko da, sozietateak egitura gastu guztien (funtsean, langile gastuen) balio bereko galerak sortuko dituela onartuz. Gastu horiek galerak konpentsatzeko bazkideen ekarpenekin estaltzen dira, ekitaldi berean.

Horrek esan nahi du egindako zerbitzuak ez direla fakturatzeko merkatuko prezioetan, sozietatearen xedea ez baita errentagarritasun ekonomikoa lortzea, baizik eta ezinbesteko zerbitzu bat ematea.

Sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, sarreraren eta gastuen ondasun eta zerbitzuetako korrante erreala ematen denean. Sarrera eta gastuen ondoriozko diru korrontea edo finantza korrontea gertatzen den uneak ez du eraginik izango.

#### **4.6. Hornidurak eta kontingentziak**

Sozietateak ondoko pasiboak onartzen ditu horniduratzat: kontabilitateko kontzeptuen esparruko definizioa eta erregistroko edo onarpeneko irizpideak betetzen dituztela, zenbatekoa edo kitatze data zehaztu gabe dutenak.

Ez dira balioetsi aurreko irizpideak betetzen dituzten pasiboak.

#### **4.7. Langileen gastuak erregistratzeko erabili diren irizpideak**

Indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren arabera, erretiro aurreratua hartzen duten sozietateko langileak sari bat jasoko dute. Haren zenbatekoa zehazteko bi faktore hartuko dira kontuan: batetik, eskubidea eskatzen duten egunean jasotzen dituzten soldatak eta alokairuak; bestetik, egun horretatik nahitaez erretiratu arte (gaur egun 65 urterekin) falta diren urteak.

Kontingentzia hori estaltzeko sozietateak hornidura egokia zuzkitzen du ekitaldi bakoitzean sortutako kopuruen arabera, kanpoko enpresek (Elkarkidetzak) egindako kalkuluetan oinarrituta. 2009ko abenduaren 31n ezein langilek ez zituen bete aipatu sarirako eskubidea edukitzeko baldintza objektiboak. Hori dela eta, sozietateak ez du hornidura hori zuzkitu.

Bidezko arrazoiren bat egon ezean, sozietateek kalte-ordainak eman behar dizkiete langileei haien zerbitzugintza eteten denean.

Lana ezohiko moduan amaitzeko beharrik aurreikusten ez denez eta lana beren borondatez uzten duten langileek edo erretiratzen direnek kalte-ordainik jasotzen ez dutenez gero, kalte-ordainik eman behar izanez gero, ordainketak langileak kanporatzeko erabakia hartzen den unean bertan kargatzen dira gastuetara.

#### **4.8. Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak**

Itzul ezin daitezkeen kapitalezko dirulaguntzak emandako zenbatekoa aintzat hartuta baloratuko dira. Hala, hasiera batean, ondare garbiari zuzenean egotzitako sarreratzat jo eta emaitzei egozten zaizkie, ekitaldian aipatu dirulaguntzek finantzatzeko aktiboen ondotik jazotako balio galeraren arabera, balioa gal ez dezaketen aktiboak ez badira. Hori dela eta, azken kasu horretan, besterentzea edo inbentarioko baja gertatzen den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Itzul daitezkeen dirulaguntzak diren bitartean, dirulaguntza bihur daitezkeen epe luzerako zor bezala kontabilizatuko dira.

Dirulaguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen badira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko sarrera moduan egotziko dira.

#### **4.9. Tartean dauden alderdiek transakzioak egiteko erabilitako irizpideak**

Merkatuko balioekin zerikusia duten eragiketa guztiak egiten ditu sozietateak. Halaber, transferentzia prezioak behar bezala lotuta daude. Horregatik, sozietateko administratzaileek uste dute ez dagoela arrisku esanguratsurik, hain zuzen, alderdi horren ondotik etorkizunean sor daitezkeen pasiboen inguruan.

**5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA**

Partida honetan ez da gertatu aldaketarik ekitaldian; hona xehetasunak:

<b>KOSTUA</b>	<b>Informatika aplikazioak</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Saldoa 2008ko urtarrilaren 1ean</b>	<b>42.861,18</b>	<b>42.861,18</b>
Altak	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
<b>Saldoa 2008ko abenduaren 31n</b>	<b>42.861,18</b>	<b>42.861,18</b>
Altak	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
<b>Saldoa 2009ko abenduaren 31n</b>	<b>42.861,18</b>	<b>42.861,18</b>

<b>AMORTIZAZIO METATUA</b>	<b>Informatika aplikazioak</b>	<b>GUZTIRA</b>
<b>Saldoa 2008ko urtarrilaren 1ean</b>	<b>42.861,18</b>	<b>42.861,18</b>
Zuzkidura	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
<b>Saldoa 2008ko abenduaren 31n</b>	<b>42.861,18</b>	<b>42.861,18</b>
Zuzkidura	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
<b>Saldoa 2009ko abenduaren 31n</b>	<b>42.861,18</b>	<b>42.861,18</b>

<b>BALIO GARBIA</b>	<b>Informatika aplikazioak</b>	<b>GUZTIRA</b>
Saldoa 2008ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18
Amortizazio metatua	(42.861,18)	(42.861,18)
<b>Balio garbia 2008ko abenduaren 31n</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
Saldoa 2009ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18
Amortizazio metatua	(42.861,18)	(42.861,18)
<b>Balio garbia 2009ko abenduaren 31n</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

## 6. OHARRA. IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu materialeko kontuetan ez da izan mugimendurik; hona xehetasunak:

KOSTUA	Instalazio teknikoak	Altzariak eta tresnak	Informazio prozesuetarako ekipoa	GUZTIRA
<b>Saldoa 2008ko urtarrilaren 1ean</b>	<b>16.424,52</b>	<b>63.861,78</b>	<b>16.412,05</b>	<b>96.698,35</b>
Altak	0,00	0,00	0,00	0,00
Intsulduketak	0,00	0,00	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>Saldoa 2008ko abenduaren 31n</b>	<b>16.424,52</b>	<b>63.861,78</b>	<b>16.412,05</b>	<b>96.698,35</b>
Altak	0,00	0,00	0,00	0,00
Intsulduketak	0,00	0,00	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>Saldoa 2009ko abenduaren 31n</b>	<b>16.424,52</b>	<b>63.861,78</b>	<b>16.412,05</b>	<b>96.698,35</b>

AMORTIZAZIO METATUA	Instalazio teknikoak eta makineria	Beste ibilgetu batzuk	Bidean den ibilgetua	GUZTIRA
<b>Saldoa 2008ko urtarrilaren 1ean</b>	<b>16.424,52</b>	<b>63.861,78</b>	<b>16.412,05</b>	<b>96.698,35</b>
Zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
Intsulduketak	0,00	0,00	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>Saldoa 2008ko abenduaren 31n</b>	<b>16.424,52</b>	<b>63.861,78</b>	<b>16.412,05</b>	<b>96.698,35</b>
Zuzkidura	0,00	0,00	0,00	0,00
Intsulduketak	0,00	0,00	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00	0,00
<b>Saldoa 2009ko abenduaren 31n</b>	<b>16.424,52</b>	<b>63.861,78</b>	<b>16.412,05</b>	<b>96.698,35</b>

BALIO GARBIA	Instalazio teknikoak eta makineria	Beste ibilgetu batzuk	Bidean den ibilgetua	GUZTIRA
Saldoa 2008ko abenduaren 31n	16.424,52	63.861,78	16.412,05	96.698,35
Amortizazio metatua	(16.424,52)	(63.861,78)	(16.412,05)	(96.698,35)
<b>Balio garbia 2008ko abenduaren 31n</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>
Saldoa 2009ko abenduaren 31n	16.424,52	63.861,78	16.412,05	96.698,35
Amortizazio metatua	(16.424,52)	(63.861,78)	(16.412,05)	(96.698,35)
<b>Balio garbia 2009ko abenduaren 31n</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>	<b>0,00</b>

Sozietatearen jardura osatzen duten zerbitzuak ematea, nagusiki, ondasun ibilgetu materialak erabiliz egiten da. Horien titularrak Arabako Foru Aldundia da, sozietatearen akziodun bakarra.

## 7. OHARRA. FINANTZA TRESNAK

### 7.1. Finantza aktiboak

Ondoren sozietatearen finantza aktiboak biltzen dituzten partidak banakatuko ditugu:

2009ko ekitaldia	Epe luzea	Epe laburra	Guztira
- Ondare tresnak	54.937,70	0,00	54.937,70
- Hirugarrenei emandako kredituak	14.798,10	32.683,18	47.481,28
- Beste finantza aktibo batzuk	1.214,65	0,00	1.214,65
- Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen bezeroak	0,00	3.084.321,99	3.084.321,99
- Zenbait zordun	0,00	1.839.918,00	1.839.918,00
- Administrazio publikoekin egindako beste kreditu batzuk	0,00	133.481,39	133.481,39
<b>GUZTIRA</b>	<b>70.950,45</b>	<b>5.090.404,56</b>	<b>5.161.335,01</b>

2008ko ekitaldia	Epe luzea	Epe laburra	Guztira
- Ondare tresnak	99.540,00	0,00	99.540,00
- Hirugarrenei emandako kredituak	21.405,15	29.353,82	50.758,97
- Beste finantza aktibo batzuk	1.214,65	0,00	1.214,65
- Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen bezeroak	0,00	2.460.982,74	2.460.982,74
- Zenbait zordun	0,00	2.182.775,89	2.182.775,89
- Administrazio publikoekin egindako beste kreditu batzuk	0,00	41.308,98	41.308,98
<b>GUZTIRA</b>	<b>122.159,80</b>	<b>4.714.421,43</b>	<b>4.836.581,23</b>

#### 7.1.1. Ondare tresnak

Inbertsioa Izenpe, S.A. merkataritza sozietatearen kapital sozialean parte hartzeari dagokio. Horren helburu soziala telekomunikazio sareen gaineko gobernu elektronikoaren erabilera sustatzea eta horren garapena indartzea da, segurtasun, egiazkotasun eta eragiketen atzeraezintasun aldetik behar diren bermeekin.

Sozietatea 2002ko ekainaren 7an eratu zen eta kapitala 1.200.000,00 eurokoa da. Arabako Kalkulu Gunea, SAK 1.659 akzio dauzka, hau da, sozietatearen kapitalaren % 8,295.

2009 ekitaldia ixterakoan, Akziodunen Batzar Nagusiak onartzeke dituen Izenpe, S.A.ko urteko kontuak 662.299,00 euroko ondare garbiaren adierazlea dira. Horren ondorioz, sozietateak duen parte hartzearen balio galera 44.602,30 eurokoa dela kontabilizatu da.

#### 7.1.2. Hirugarrenei emandako kredituak

Sozietateko langileek maileguak eta nomina aurrerakinak jasotzeko eskubidea dute, hitzarmenean ezarritako baldintzei lotuta.

Balantzeko zenbatekoa nomina aurrerakinei dagokie batik bat.

Hitzarmenean ondoko baldintzak ezarri dira aurrerakinak jaso ahal izateko:

- Gehieneko zenbatekoa: 6.044 euro
- Itzultzeko hiru aukera: 12 hileko, 24 edo 36

### 7.1.3. Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen bezeroak

Honako hau da partida honen osaera zehatza:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
<b>Taldeko enpresa zordunak</b>		
<u>Taldeko enpresen bezeroak</u>	<u>3.084.321,99</u>	<u>2.460.982,74</u>
- Arabako Foru Aldundia	2.975.855,07	2.396.108,09
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	70.682,89	44.480,14
- Arabako Biltzar Nagusiak	8.783,17	8.783,17
- Artium Museoa	22.202,36	4.825,84
- Araba Garapen Agentzia	6.798,50	6.785,50

### 7.1.4. Hainbat zordun

Partida honetan Arabako Foru Aldundiaren zorra jasotzen da, bazkideek galerak konpentsatzeko egin beharreko ekarpenei dagokien zorra.

### 7.2. Finantza pasiboak

Finantza pasiboak “Zorrak eta ordaindu beharreko partidak” kontuan jasota daude; hona xehetasunak:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
- Beste finantza pasibo batzuk	33.972,79	32.607,95
- Hornitzaileak	3.441.383,00	2.755.981,92
- Langileak	229.174,00	207.377,00
- Administrazio publikoak	424.752,22	434.143,05
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.129.282,01</b>	<b>3.430.109,92</b>

“Langileak” partidaren helburuen arabarako ordainsarietarako behariko dela zenbatetsi den zenbatekoa jaso da.

Hona “Administrazio publikoak” partidaren xehetasunak:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
- Foru Ogasun hartzekoduna (8. oharra)	301.472,30	306.702,23
- Gizarte Segurantzaren hartzekoduna	123.279,92	127.440,82
<b>GUZTIRA</b>	<b>424.752,22</b>	<b>434.143,05</b>

### 7.3. Funts propioak

Honako hau da partida honen osaera zehatza:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
- Kapitala	808.164,70	808.164,70
- Erreserbak	2.629,82	2.629,82
- Aurreko ekitaldietako emaitzak	6.742,80	6.742,80
- Bazkideen beste ekarpen batzuk	7.868.588,58	6.959.057,91
- Ekitaldiaren emaitza	(7.675.524,36)	(6.380.971,39)
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.010.601,54</b>	<b>1.395.623,84</b>

#### 7.3.1. Kapital harpidetua

Abenduaren 31n, Arabako Kalkulu Gunea, SAREN kapitala 134.470 akziok ordezkatzen zuten (bakoitzaren balio izendatua 6,01 euro zen). Akzio horiek guztiak Arabako Foru Aldundiak harpidetu eta ordaindu ditu, eta ondorioz Arabako Kalkulu Gunea, SA foru sozietate publikoa da.

Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategina aldatu duen Erantzukizun Mugatuko Sozietateei buruzko martxoaren 23ko 2/1995 Legeko 2. xedapen gehigarriaren arabera, sozietatea pertsona bakarreko sozietate gisa erregistratu da Merkataritza Erregistroan.

#### 7.3.2. Legezko erreserba

Sozietateak ekitaldi bakoitzeko mozkinen % 10 erreserba funts bat sortzeko erabili behar du nahitaez, erreserba funtsa gutxienez sozietatearen kapitalaren % 20 izatera iritsi arte. Erreserba ezin da banatu akziodunen artean; galerak konpentsatzeko bakarrik erabili daitezke, horretarako beste erreserbarik egon ezean.

#### 7.3.3. Erreserba berezia

Kapitala eurotara egokitzeagatik diferentzietan dagoen; ezin da erabili.

#### 7.3.4. Bazkideen ekarpenak galerak konpentsatzeko

2009ko ekitaldian zehar Arabako Foru Aldundiak ekarpenak egin ditu -guztira 7.290.502,06 euro- galerak konpentsatzeko; Akziodunen Batzar Nagusiak onartzeke dituen ekitaldiko galerak 7.675.524,36 euro izan dira. 2008an 578.086,52 euroko ekarpen soberakina egon zen. Kopuru hori 2009ko emaitza negatiboa konpentsatzeko aplikatu da. 2009ko ekitaldiko ekarpenen soberakina hurrengo ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko erabiliko da.

## 8. OHARRA. ZERGA EGOERA

Sozietateak Foru Ogasunarekin dauzkan saldoak honako hauek dira:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
<u>Saldo zordunak</u>	133.481,39	41.308,98
- FOaren zorra atxikipenengatik	351,19	846,08
- FOaren zorra BEZarengatik	133.130,20	40.462,90
<u>Saldo hartzekodunak</u>	424.752,22	434.143,05
- FOaren hartzekoa PFEZ	301.472,30	306.702,23
- Gizarte Segurantza hartzekoduna	123.279,92	127.440,82

### 8.1. Sozietateen gaineko Zerga

Kontabilitateko emaitza negatiboa bat dator Sozietateen gaineko Zergaren oinarri negatiboarekin.

Sozietateak ez du erregistratzen ekitaldi honetako eta aurrekoetako zerga oinarri negatiboen ondoriozko kreditu fiskala, horiek geroan berreskuratzeko posibilitateak ezdeusak direla iritzita.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin daitezke eman behin betiko likidatutzat harik eta zerga agintarietara aitortzen ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio epealdia pasatu arte. 2009ko abenduaren 31n, sozietateak zerga agintarietara ikuskatzeko zabalik dauzka aplikagarriak zaizkion zerga nagusi guztiak, azken lau ekitaldietakoak.

## 9. OHARRA.- SARRERAK ETA GASTUAK

### 9.1. Negoio zifren zenbateko garbia

Ondoko taulan ekitaldiko negozioen zenbatekoa banakatu da:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
- Arabako Foru Aldundia	5.416.284,34	4.490.599,80
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	270.689,65	210.941,38
- Gazteriaren Foru Erakundea	35.704,31	96.845,64
- Arabako Biltzar Nagusiak	90.860,34	88.196,53
- Artium	30.921,55	6.000,00
- Araba Garapen Agentzia S.A.	11.721,55	11.699,14
- Beste batzuk	5.550,74	4.758,33
<b>GUZTIRA</b>	<b>5.861.732,49</b>	<b>4.909.040,82</b>

### 9.2. Ustiapeneko kontsumoak:

Partida honetan Arabako Kalkulu Gunea, SAK birkontratutako zenbait enpresak egindako lanen ondoriozko zenbatekoak jasotzen dira.

### 9.3. Langile gastuak

Hona hemen gastu hauen 2009ko abenduaren 31ko xehetasunak:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
- Soldatak	5.373.164,63	4.992.900,79
- Enpresaren konturako Gizarte Segurantzza	1.250.644,56	1.152.681,93
- Pentsio sistema osagarrietara egindako ekarpenak	114.379,87	107.641,72
- Bestelako gizarte gastu batzuk	152.551,32	141.902,39
- Langileen ordainsarierarako horniduren soberakina	0,00	(233.203,58)
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.890.740,38</b>	<b>6.161.923,25</b>

“Beste gizarte gastu batzuk” epigrafean hauek jasotzen ziren:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
- Seme-alaben jaiotzagatiko laguntza	300,00	900,00
- Langileen prestakuntza	117.685,15	109.886,81
- Ekonomatoko gastuak	10.218,60	9.784,00
- Azterlanetarako laguntzak	4.806,13	4.655,37
- Enpresako medikuntza	11.407,11	10.986,21
- Hizkuntza ikastaroak	2.911,77	3.411,76
- Maileguen korrituen hobaria	5.222,56	2.278,24
<b>GUZTIRA</b>	<b>152.551,32</b>	<b>141.902,39</b>

### 10. OHARRA. DIRULAGUNTZAK, DOHAINZAK ETA LEGATUAK

2009 ekitaldia ixterako 54.937,70 euroko saldoa duen dirulaguntzen, dohaintzen eta legatuen partida Izenperen akzioak eskuratzeko Arabako Foru Aldundiak 2002 ekitaldian emandako dirulaguntzari –zenbatekoa: 99.540,00 euro- dagokio (7. oharra), 2009 ekitaldiko emaitzaren egozketa –zenbatekoa: 44.602,30 euro- izan ezik. Emaitza hori zenbateko beragatik egindako parte hartzearen balio galerari dagokio.

Sozietateak hura ematean ezarritako baldintzak bete ditu.

### 11. OHARRA.- ERAGIKETAK LOTUTAKO ALDERDIEKIN

Lotutako alderdiekin egindako eragiketak Kalkulu Guneak egindako zerbitzuak dira; ondoko taulan ekitaldiko eragiketak eta 2009ko abenduaren 31n ordaindu gabeko saldoak banakatu dira:

Erakundea	Zenbatekoa (1)	2009ko ekitaldia	
		Zorduna	Hartzekoduna
- Arabako Foru Aldundia	5.416.284,34	2.975.855,07	--
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	270.689,65	70.682,89	--
- Gazteriaren Foru Erakundea	35.704,31	0,00	--
- Arabako Biltzar Nagusiak	90.860,34	8.783,17	--
- Araba Garapen Agentzia S.A.	30.921,55	22.202,36	--
- Artium Museoa	11.721,55	6.798,50	--

(1) BEZa kanpo

Erakundea	Zenbatekoa (1)	2008ko ekitaldia	
		Zorduna	Hartzekoduna
- Arabako Foru Aldundia	4.490.599,80	2.396.108,09	--
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	210.941,38	44.480,14	--
- Gazteriaren Foru Erakundea	96.845,64	0,00	--
- Arabako Biltzar Nagusiak	88.196,53	8.783,17	--
- Araba Garapen Agentzia S.A.	11.699,14	6.785,50	--
- Artium Museoa	6.000,00	0,00	--

(1) BEZa kanpo

Sozietateak zerbitzuak fakturatzeko aplikatzen duen irizpidea azpikontratutako zerbitzuen zenbatekoak bakarrik sartzea da. Ondorioz, egitura gastu guztien (funtsean, langile gastuen) balio bereko galerak sortzen dira, eta galerok bazkideek galerak konpentsatzeko egiten dituzten ekarpenekin estaltzen dira (4.5. oharra).

## **12. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA**

### **12.1. Administrazio Kontseiluko kideen ordainsariak**

2008ko eta 2009ko ekitaldietan zehar, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso eta ez daukate aurrerakinengatiko edo kredituengatiko saldorik sozietatearekin. Era berean, sozietateak ez du inolako betebeharririk, pentsioei eta bizitza aseguruiei dagokienez, administrazio organoko kide izan direnekin edo gaur egungo kideekin, eta ez du haien konturako betebeharririk berme gisa.

### **12.2. Goi zuzendaritzako langileen ordainsariak**

Zuzendaritza goreneko langileek ekitaldian jaso duten ordainsaria honako hau izan da:

	2009ko ekitaldia	2008ko ekitaldia
Soldatak, dietak eta beste ordainsari batzuk	80.496,74	78.334,38
<b>Guztira</b>	<b>80.496,74</b>	<b>78.334,38</b>

### **12.3. Administrazioaileek sektoreko beste sozietate batzuetan duten partaidetza**

Arabako Kalkulu Gunea, S.Aren administrazioaileek ez daukate partaidetzarik xede bera edo antzekoa edo osagarria duen beste ezein enpresatan eta, ondoren azalduko den salbuespenarekin, ez daukate halako enpresetan inolako kargurik, eta lanean ere ez dute jarduten. Hala ere, Administrazio Kontseiluko kide batzuek zuzendaritza karguak edo kudeaketarekin loturiko eginkizunak dauzkate beste foru sozietate publiko batzuetan edo erakunde publikoek zuzenean edo zeharka partaidetzako duten sozietateetan (ikus 1. eranskina).

Lanpostu eta eginkizun horiek ez dira baztertu memoriaren ohar honetan, ez baita uste beren diligenzia eta leialtasun betebeharririk kalterik egiten dienik edota interesengatiko gatazka potentzialik, uztailearen 17ko 26/2003 Legearen testuinguruan betiere, horren bidez aldatzen baita uztailearen 28ko 24/1988 Legea, Baloreen Merkatuari buruzkoa, eta Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategina, abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintza Errege Dekretuak onartua. **12.4. Auditoreen ordainsariak**

Ekitaldian sozietateko kontuen auditoreek sortutako ordainsarien zenbatekoa, Arabako Foru Aldundiak ordainduko duena, honako hau izan da:

	2009	2008
Kontu auditoretzagatik kargatutako ordainsariak	5.900,00	6.167,00
Beste ordainsari batzuk zerbitzuak emateagatik	0,00	0,00
<b>Guztira</b>	<b>5.900,00</b>	<b>6.167,00</b>

### 12.5. Langileak

Ekitaldi honetan langileen batez besteko kopurua, lanbide kategorien arabera banatuta, hauxe izan da:

	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	2009	2008	2009	2008	2009	2008
- Zuzendaria/kudeatzailea	0	0	1	1	1	1
- Arloko arduraduna	8,68	9	0,25	0	8,93	9
- Proiektu burua	10,5	11	4,5	5	15	16
- Aholkularia	7,87	6	2,67	3	10,54	9
- Aholkulari teknikoa	1	1	2	1,04	3	2,04
- Analista funtzionala	10,5	9,81	8,92	10	19,42	19,81
- Sistema analista	16,3	17,3	3,67	3	19,97	20,3
- Sistema analista / teknikaria	2,95	0,43	2	1,47	4,95	1,9
- Garapeneko/eraikuntzako teknikaria	0,18	1	0	1	0,18	2
- Garapen/diseinuko teknikaria	2,97	1,29	2	0,91	4,97	2,2
- Laguntza teknikaria	1	1	0	0	1	1
- Ekoizpen teknikaria	3,44	3,94	3	3	6,44	6,94
- Administrazio teknikaria	0	0	1	1	1	1
- Administraria	0,12	1,15	8	8	8,12	9,15
- Gidaria	1	0	0	0	1	0
<b>GUZTIRA</b>	<b>66,51</b>	<b>62,92</b>	<b>39,01</b>	<b>38,42</b>	<b>105,52</b>	<b>101,34</b>

**Oharra:** 2009an, 8 langilek erretiro partziala eta aurreratua hartu dute; % 15eko dedikazioa zenbatu da.  
2008an, 6 langilek erretiro partziala eta aurreratua hartu dute; % 15eko dedikazioa zenbatu da.

### 13. OHARRA. ITXIERAZ GEROZTIKO GERTAKIZUNAK

Ez da jazo erregistro eta balorazio araua aplikatzeagatik erantsitako urteko kontuen doikuntza dakarten inguruabarrak agerian jarri dituen ondorengo gertakizunik.

## **1. ERANSKINA**

### Claudio Rodríguez Gutiérrez

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Administrazio Kontseiluko presidentea.

Partaidetza: % 0

Administratzailea deneko sozietateak:

Fernando Buesa Arena, S.A.

Partaidetza: % 0

### Luis Latorre Murga

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Sailburua

Administratzailea deneko sozietateak:

Araba Garapen Agentzia, SA

Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa – Empresa de Certificación y Servicios Izenpe, SA

Partaidetza: % 0

### Josu Zubiaga Nieva.

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Sailburua

Partaidetza: % 0

### Eduardo Bringas González

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilaria

Administratzailea deneko sozietateak:

Araba Uraren Agentzia SA.

Arabako Lanak, S.A.

Naturgolf, SA.

Hazibide, SA

Partaidetza: % 0

### Izaskun Martínez de Lahidalga Pinedo

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilaria

Administratzailea deneko sozietateak:

Sociedad Anónima de Gestión de Patrimonio Cultural Edificado de Álava – Arabako Kultura Ondare Eraikia Kudeatzeko Sozietate Anonimoa (Arabarri, SA).

Partaidetza: % 0

### Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilaria

Administratzailea deneko sozietateak:

Naturgolf, SA.

Araba Uraren Agentzia SA.

Arabako Lanak, S.A.

Partaidetza: % 0

### Hernando Lacalle Edeso

Arabako Kalkulu Gunea, SAko kargua: Kontseilaria

Administratzailea deneko sozietateak:

Naturgolf, SA.

Gasteizko Aireportua Sustatzeko Bidea, SA

Araba Garapen Agentzia, SA

Centro de Empresas e Innovación de Álava, SA – Arabako Eraberrikuntza Industrialdea, AB

Hazibide, SA

Asparreneko Elkartegia, SA.

Arabako Teknologi Elkartegia, SA

Laudioko Elkartegia, SA.

Partaidetza: % 0

**“ARABAKO KALKULU GUNEA, S.A.”**  
**KUDEAKETA TXOSTENA – 2009KO EKITALDIA**

Sozietateak informatikarekin, oro har, loturiko jarduerak aspaldiko urteotan eraman izan dituen muga normalen barruan mantentzea espero du. Momentu hauetan ez dago inolako arrazoirik ez inguruabarririk haietan eragin kaltegarria izan dezakeenik.

Ekitaldi hau amaitu eta gero, eta nahitaezko urteko kontuak aurkeztu arte, ez da ezagutzen inolako gertaera aipagarriarik sozietatearen irudi zehatza emateko garrantzizko informazio gehigarria eskain dezakeenik.

Informatikarekin oro har loturiko ekintzak aurrera eramatean datzan gure jarduerak jarraitu du informatika programa berriak ezartzeko eta funtzionamenduan dauden postuak hobetzeko ildoan, haien kalitatearen etengabeko kontrola indartuz, eta kostuak benetan murrizten saiatuz.

Sozietateak ez du transakziorik egin kapitala osatzen duten akzioekin.

Negoio zifraren gehikuntza informatika aplikazioen mantentze eta hobetze jarduera handiagoa egitearen ondorioa da.

Ekitaldiko galerak, batez ere, gastu finkoen edo egiturazko gastuen zioz sortutakoak, ugaritu egin dira, bereziki, enpresa hitzarmena aplikatzeagatik, baita sozietatea aldatzeko plana abian jartzeagatik ere.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 16a.

Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Testu Bategineko 171. artikuluan eta Merkataritza Erregistroaren Arautegiko 330. artikuluan ezarritakoari jarraiki, 2010eko martxoaren 26an, Vitoria-Gasteizen, **ARABAKO KALKULU GUNEA, Saren** administratzaileek honi erantsitako urteko kontuak sinatu dituzte. Kontuen osagaiak honako hauek dira: balantzea; galeren eta irabazien kontua; aldaketen egoera ondare garbian; eskudiru fluxuen egoera; memoria (1. oharretik 13. oharrera; 1 - 25 bitarteko or.); kudeaketa txostena (21. or.).

Claudio Rodríguez Gutiérrez jauna  
Presidentea

Luis Latorre Murga jauna.  
Kontseilaria

Eduardo Bringas González jauna.  
Kontseilaria

Izaskun Martínez de Lahidalga Pinedo andrea.  
Kontseilaria

Josu Zubiaga Nieva jauna.  
Kontseilaria

Hernando Lacalle Edeso jauna  
Kontseilaria

Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela jauna.  
Kontseilaria

Manuel Martín Grande jauna.  
Idazkaria (ez da kontseilaria)